**HIRUGARREN MUNDUAN KOOPERAZIORAKO PROIEKTUAK BURUTZEARREN DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK. 2019KO DEIALDIA**

**1. artikulua.- Diru-laguntzaren helburua.**

1.- Garapen-bidean dauden herrialdeetan burutuko diren ekintzak beste erakundeekin batera finantzatzeko diru-laguntzak ematea du helburu, eta aldi berean, gatazkan edota errefuxiatu eta desplazatuen eremuetan. Ekintza hauek hurrengo apartatuetan sailkatzen dira:

a) Garapenerako proiektuak.

b)Sentsibilizazio, garapenerako hezkuntzako eta bidezko merkataritzako proiektuak.

Sentsibilizazio jarduerak egiteak Gernika-Lumoko udalerrian elkartasunean oinarrituriko jarrerak eta ekintzak sustatzen laguntzea du helburu. Jarduerak kolektibo berezientzat edo herritarrentzat, orokorrean, izango dira; eta honako hauek antola daitezke, besteak beste: jardunaldiak, erakusketak, ikastaroak edo sentsibilizazio jarduerak.

c) Premiazko laguntza humanitarioak.

d) Familia harrera programak. Gernika-Lumoren eta saharar herriaren arteko konpromisoa dela eta herri horri laguntzako, “Oporrak Bakean” programaren menpean, 8 haur sahararren bidaia ordaintzeko beste diru kopuru emango da.

e) Kooperaziorako dagoen aurrekontutik, %10 gutxienez Euskal Fondoak kudeatutako proiektuetarako izango da.

***BASES QUE RIGEN LAS SUBVENCIONES PARA LA FINANCIACIÓN DE PROYECTOS DE COOPERACIÓN CON EL TERCER MUNDO. CONVOCATORIA 2019***

***Artículo 1.- Objeto de la subvención.***

*1.- El objeto de esta convocatoria es la cofinanciación de acciones a impulsar en países en vías de desarrollo, conflicto o campos de refugiados y desplazados. Las citadas acciones se clasifican en los apartados siguientes:*

*a) Proyectos de desarrollo.*

*b) Proyectos de sensibilización, educación para el desarrollo y comercio justo.*

*La realización de actividades de sensibilización tendrá como objetivo contribuir a fomentar actitudes y acciones solidarias en el municipio de Gernika-Lumo, destinadas a colectivos específicos o a la población en general, bien sean a través de jornadas, exposiciones, cursos u otras actividades sensibilizadoras.*

*c) Ayudas humanitarias de emergencia.*

*d) Programas de acogida. En atención al compromiso de ayuda de la población de Gernika-Lumo con el pueblo saharaui al amparo del programa “Vacaciones en Paz”, se destinará el importe suficiente para afrontar el viaje de 8 niñ@s saharauis.*

*e) De la consignación presupuestaria total para cooperación, se dedicará como mínimo el 10% a proyectos gestionados por la entidad Euskal Fondoa.*

2.- Diru-laguntzak emateko jarraituko den prozedura norgehiagoka bidez izango da, Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak agintzen dituen parametroen arabera. Halaber, diru-laguntza hauek bateragarriak dira, onuradunek eska ditzaketen beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

*2.- Para la concesión de estas subvenciones se seguirá el procedimiento de concurrencia competitiva, en base a los parámetros fijados en la Ordenanza General de Subvenciones. Así mismo, esta subvención será compatible con otras de las mismas o análogas características que los beneficiarios pudieran solicitar.*

**2. artikulua.- Diru-laguntzak jaso ditzaketen erakundeak eta baldintzak.**

Onuradunek hurrengo hauexek izan litezke; GKE izatea edota irabazi asmorik gabeko erakundea, legez eratuta eta erregistratuta dagokion Erregistroan eta, gutxienez, duela urtebetetik jardunean egotea. Erakundeak bere egoitza nagusia edo legez eratutako ordezkaritza Bizkaiko lurralde historikoan eduki beharko du.

Diruz lagunduko diren proiektuen titularrak ez dira Herri Administrazioaren mendeko Erakundeak eta Zerbitzuak izango, ezta aurrezki-erakundeak ere.

***Artículo 2.- Entidades beneficiarias.***

*Tendrán la consideración de beneficiarias las Organizaciones No Gubernamentales (ONGD) sin ánimo de lucro y debidamente registradas, con un mínimo de un año de existencia cuyas actividades coincidan con el objeto de la convocatoria y con sede central o delegación legalmente constituida en el territorio histórico de Bizkaia.*

*De los proyectos subvencionados no podrán ser titulares Instituciones y Servicios dependientes de la Administración Pública y entidades de ahorro.*

**3. artikulua.- Oinarrizko baldintzak.**

Onuradunek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Helburuetako bat lankidetzarako jarduerak egitea izango da.

- Bere helburuak betetzeko behar adinako azpiegitura izatea, eta lankidetzaren arloan esperientzia baduela egiaztatzea.

***Artículo 3.- Requisitos básicos.***

*Los beneficiarios deberán cumplir los siguientes requisitos:*

*- Tener entre sus fines la realización de actividades de cooperación.*

*- Disponer de la infraestructura suficiente para garantizar el cumplimiento de sus objetivos acreditando la experiencia en el campo de la cooperación.*

**4. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak.**

a) Oinarrien eranskinean dagoen formularioa hartu proiektuak aurkezteko.

b) Diru-laguntza eskatu duen erakundearen dokumentazioa (informazio hori behin baino ez da erantsiko, deialdian aurkeztutako proiektu kopurua gorabehera).

c) Estatutuen eta erakundea dagokion erregistroan egindako inskripzioaren eta eskaera sinatu duen pertsonaren ahalordetzearen kopia legeztatuak.

d) IFKren fotokopia eta zerga alorreko betebeharretan egunean dagoelako ziurtagiria baita, Gizarte Segurantzakoa ere.

e) Erakundearen organigrama. EAEn ordainsaria jasotzen duten eta jasotzen ez duten langileak edo laguntzaileak. Bazkideen, boluntarioen, laguntzaile edo erakundeko kideen kopurua.

f) Aurreko urteko diru kontuen balantzea, estatutuek baimendutako pertsona batek sinatua.

g) Azken bost urteetan kudeatutako proiektuak. Eginiko proiektu garrantzitsuenen izena eta zenbatekoa (eurotan).

h) Aurkeztutako ekintza-motaren arabera, Udalak beste agiri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango du, erabaki zuzena hartzeko.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdiaren arauaren baldintza guztiak, organo eskudunak agindeia egingo dio pertsona interesdunari, gehienez hamar (10) laneguneko epean eskaera zuzentzeko. Horretaz gain, aipatuko dio, ez baldin badu hala egiten, bere eskaera baliogabetuko dela.

***Artículo 4.- Documentación a presentar.***

*a) Formulario de presentación de proyectos conforme al modelo anexo a las Bases.*

*b) Documentación de la entidad solicitante (esta información se adjuntará una sola vez independientemente del nº de proyectos presentados en la convocatoria).*

*c) Fotocopia autentificada de Estatutos y de la inscripción en el Registro correspondiente, así como del apoderamiento de la persona que firma la solicitud.*

*d) Fotocopia del NIF y certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.*

*e) Organigrama de la organización. Personal o colaboradores remunerados y sin remunerar en la CAPV. Nº de socios/as, voluntarios/as, personal colaborador o miembros de la organización.*

*f) Balance de cuentas del año anterior, suscrito por persona autorizada según Estatutos.*

*g) Proyectos gestionados en los últimos cinco años. Título de proyecto e importe en euros de los proyectos más relevantes.*

*h) El ayuntamiento podrá recabar, para mejor proveer a la resolución, la presentación de otros documentos cuando así lo aconseje el tipo de acción que se presente.*

*Si la solicitud no va acompañada de todos los documentos exigidos, el órgano competente requerirá a la persona interesada para que los subsane en el plazo máximo de diez (10) días hábiles, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida de su solicitud.*

**5. artikulua.- Diru-laguntzen zenbatekoa.**

Deialdi honen helburuak lortzeko, 2019. ekitaldirako xedatuko den gehienezko kopurua 58.250 euro izango da.

Gastua diru-partida honen kargura izango da: “Ayuda a la Cooperación” 8 2301 49000

**6. artikulua.- Diru-laguntzaren mugak.**

Diru-laguntza bakoitzaren banakako zenbatekoak ezingo du gainditu 10.000 euroko kopurua, ezta erakundeak eskatutako kopurua ere.

**7. artikulua.-Balorazio-irizpideak.**

1.- Onuradun bakoitzaren eskabidea 100 punturen arabera baloratuko da hurrengo lau atal bakoitzean eta lortutako puntuazioa, diru-laguntza kopuru osoaren portzentajea ateratzeko erabiliko da.

**A) GARAPENERAKO PROIEKTUAK *(%60 x 49.211,49 = 29.526,90€):* (gehienez 100 puntu)**

1- **Kalitate teknikoa(gehienez 30puntu)**
   - Erakundeak egiteko asmoa duen ekintzaren bideragarritasun teknikoa.
   - Proiektua gerora ere iraunkor izatea.

2- **Parte hartzen duten alderdien gaitasuna (gehienez 15 puntu)**

***Artículo 5.- Cuantía de la subvención.***

*Para la consecución de los objetivos de la presente convocatoria se destina para el ejercicio 2019 la cantidad máxima de 58.250 euros.*

*El gasto será con cargo a la partida presupuestaria “Ayuda a la Cooperación” 8 2301 49000*

***Artículo 6.- Límites de la subvención.***

*La cuantía individualizada de cada subvención no podrá superar la cantidad de 10.000 euros, ni el importe solicitado por la entidad.*

***Artículo 7.- Criterios de valoración.***

*1.-La petición de cada solicitante se valorará sobre 100 puntos en cada uno de los cuatro apartados siguientes y la puntuación conseguida se utilizará para calcular la proporción correspondiente en el total de la partida de subvención.*

***A) PROYECTOS DE DESARROLLO (60% x 49.211,49 = 29.526,90€):(máximo 100 puntos)***

1- ***Calidad técnica (máximo 30 puntos)***
   - *Viabilidad técnica de la acción a realizar.*
   - *Sostenibilidad futura del proyecto.*

2- ***Capacidad de las partes implicadas (máximo 15 puntos)***

- Tokiko bazkidearen esperientzia.
- Onuradunek proiektuan duten partaidetza.
- Segimendua egiteko gaitasuna.

**3- Aurrekontua (gehienez 5 puntu)**

- Jardueretara egokitzea.
- Proiektuaren bideragarritasuna, finantzazioaren aldetik.
- Zenbatekoaren, emaitzen eta onuradun kopuruaren arteko erlazioa.

**4-Proiektuaren helburu sozialak (gehienez 50 puntu)**

- Bereziki laguntza behar duten sektoreen bizi-baldintzak hobetzea.
- Generoaren ikuspuntua gehitzea.
- Giza Eskubideak sustatzea.
- Komunitatearen kultura eta balore etikoak bultzatzea.
- Ekintzak ingurumenera egokitzea.

**B) <u>SENTZIBILIZAZIO ETA GARAPENERAKO SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK *(%10 x 49.211,49 = 4.921,15€)*</u>*:* ( gehienez 100 puntu)**

- Garapen-bidean dauden herrialdeetako egungo egoeran sakontzea.
- Proiektuak berritasunak izatea.
- Dirulaguntza eskatu duen erakundearen esperientzia, sentsibilizazio ekintzen arloan.
- Garapen-bidean dauden herrialde-etako pertsonek parte-hartzea.

- *Experiencia del socio local.*
- *Participación de l@s beneficiari@s en el proyecto.*
- *Capacidad de seguimiento.*

***3- Presupuesto (máximo 5 puntos)***

- *Adecuación de las actividades planteadas.*
- *Viabilidad financiera del proyecto.*
- *Relación entre el monto, resultado y número de beneficiari@s.*

***4- Objetivos sociales del proyecto (máximo 50 puntos)***

- *Mejora de las condiciones de vida de sectores especialmente necesitados.*
- *Incorporación del enfoque de género.*
- *Fomento de los Derechos Humanos.*
- *Potenciación de la cultura y los valores éticos de la comunidad.*
- *Adecuación de las acciones al medio ambiente.*

***B) <u>PROYECTOS DE SENSIBILIZACIÓN y/o EDUCACIÓN AL DESARROLLO (10% x 49.211,49 = 4.921,15€)</u>: (máximo 100 puntos)***

- *Profundización sobre la realidad de los países en vías de desarrollo.*
- *Novedad del proyecto.*
- *Experiencia de la entidad solicitante en materia de acciones de sensibilización.*
- *Participación de personas de países en vías de desarrollo.*

- Herrialde horietako kolektiboen eta Gernika-Lumo herriaren arteko harremanak eta ezagutza sustatzea.
- Erakunde desberdinek proiektua osatzea eta denak elkarrekin hori burutzea.

- *Promoción de conocimiento e intercambio entre colectivos de estos países y Gernika-Lumo.*
- *Participación en la elaboración y ejecución de varias organizaciones de forma conjunta.*

**C) <u>PREMIAZKO LAGUNTZA HUMANITARIOAK *(%15 x 49.211,49 = 7.381,72 €)*</u>: (gehienez 100 puntu)**

Proiektuak aurkezteko deialdiak jarririko epearen barruan ez balego laguntza humanitariorako eskabiderik, atal horri dagokion portzentajea beste edozein atalari metatu egingo zaio.

***C) <u>AYUDAS HUMANITARIAS DE EMERGENCIA (15% x 49.211,49 = 7.381,72 €)</u>: (máximo 100 puntos)***

*De no existir petición de ayuda humanitaria previa a la finalización del plazo de presentación de proyectos fijado en la convocatoria, el porcentaje que le hubiera podido corresponder a este apartado se acumulará a cualquiera del resto de los apartados.*

**D) <u>FAMILIA HARRERA PROGRAMAK*(%15x49.211,49=7.371,82€)*</u>: (gehienez 100 puntu)**

2.- Gizarte Ekintza sailak banan-banan baloratuko du irizpide bakoitza, eta, horretarako, aholkua eska diezaioke bidezko deritzen pertsona edo erakundeei.

3.- Emango den diru-laguntza ez da inolaz ere proiektuan zehazten den guztiaren %75 baino handiagoa izango, 6. artikuluan aipatzen diren mugekin, eta zenbateko txikitan Gizarte Ekintzarako Batzorde informatiboko irizpideak kontuan izango dira.

***D) <u>PROGRAMAS DE ACOGIDA(15% x 49.211,49 = 7.381,72€)</u>: (máximo 100 puntos)***

*2.- Cada uno de los criterios será valorado de manera individual por el área de Acción Social, el cual podrá solicitar asesoramiento a aquellas personas o entidades que considere oportuno.*

*3.- En ningún caso se concederán ayudas que superen el 75% del total del proyecto con los límites contemplados en el artº 6 y en cuantías pequeñas a criterio de la Comisión informativa de Acción Social.*

**8.artikulua.- Ebazpena jakinarazteko epea.**

Deialdi publikoa argitaratzen denetik hasita gehienez sei (6) hilabeteko epea ezarriko da onuradunei diru-laguntzaren ebazpen arrazoitua jakinarazteko.

***Artículo 8.- Plazo para la notificación de la Resolución.***

*La resolución sobre la concesión de la subvención será notificada a los beneficiarios debidamente motivada en el plazo máximo de seis (6) meses a contar desde la publicación de la convocatoria pública.*

**9. artikulua.- Egiaztatze-epea.**

Garapenerako proiektuen kasuan, diru-laguntza zertan erabili den egiaztatzeko, diru-laguntzak esleitu zirenetik hamazortzi (18) hilabeteko epea izango dute onuradunek. Sentsibilizazio jarduerak sei (6) hilabeteko epean egiaztatu beharko dira.

Erakundeek diru-laguntza zertan erabili duten justifikatu ezean, baliteke Gernika-Lumoko Udalak etorkizunean ematen dituen beste diru-laguntza batzuk jasotzeko ezgaiturik gelditzea.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek, dena delakoagatik ere, gastuak burutzen ez badituzte, edo Gernika-Lumoko Udalaren Gizarte Ekintza Batzordeari galdetu barik edo azken horrek baimena eman barik proiektuetan funtsezko aldaketaren bat egiten badute, jasotako dirua itzultzeko konpromisoa hartu behar dute.

**Amaierako lehen xedapena.**

Urtero dagozkion deialdiak onesteko eta argitaratzeko derrigortasunari utzi gabe, oinarri berezi hauek indarrean jarraituko dute organo eskudunak aldatzen ez dituen bitartean.

**Amaierako bigarren xedapena.**

Oinarri berezi hauetan aurreikusita ez dauden gaietarako, Gernika-Lumoko Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrera joko da.

***Artículo 9.- Plazo de justificación.***

*Los beneficiarios tendrán un plazo para la presentación de la documentación relativa a la justificación de dieciocho (18) meses desde la adjudicación si se trata de proyectos de desarrollo y las actividades de sensibilización deberán justificarse en el término de seis (6) meses.*

*El no cumplimiento de la justificación podrá implicar la inhabilitación para la percepción de nuevas ayudas por parte del ayuntamiento de Gernika-Lumo.*

*Las ONGD beneficiarias se comprometerán a devolver el importe de las cantidades percibidas si los gastos no se llevasen a cabo por cualquier causa o se modificasen sustancialmente los proyectos sin consulta y autorización previa por parte de la Comisión de Acción Social del Ayuntamiento de Gernika-Lumo.*

***Disposición final primera.***

*Sin perjuicio de la obligación de aprobar y publicar las correspondientes convocatorias anuales, las presentes bases específicas seguirán en vigor en tanto en cuanto no se proceda a su modificación por el órgano competente.*

***Disposición final segunda.***

*Para lo no previsto en estas bases específicas, será de aplicación la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Gernika-Lumo.*